

EGILEA

Roberto Santiago

IRUDIGILEA

Enrique Lorenzo

GAIAK

Kirola (futbola). Familia. Etika. Kulturartekotasuna. Maitasuna. Zeloak. Poza, baikortasuna. Umorea. Adiskidetasuna. Misterioa. Talde-lana

GAITASUNAK

Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa. Herritartasunerako gaitasuna

BESTE ARLOEKIKO LOTURA

Arte Hezkuntza (Plastika)

ORRIALDE-KOP.: 280



Belatz-begiaren misterioa

Sekretuak agerian

ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Abentura xume eta dibertigarri bat kontatzen due-lako, misterioa eta futbola nahasita. Intimitatearen, leialtasunaren eta zintotasunaren garrantziaz diharduelako. Futboleroen bildumak milaka neska-mutilen irakurzaletasuna bultzatzen lagundu due-lako, eta askoz ere liburu gehiago daudelako bilduma horretan, bertako istorioekin gozatzen jarraitzeko.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Sevilla la Chicako herri-tarren bizitza pribatua agerian ari da geratzen, herri-aren agertzen ari diren pintaden erruz. Nor da pintada horien egilea? Futboleroek misterio hori argitu nahiko dute, eta, gainera, torneo zail bat jokatu beharko dute, lehen aldiz belatz-begiaren teknologia erabilia. Denen artean egia aurkituko dute: pintadak ez dituela pertsona bakar batek egin, baizik eta zazpi pertsonak, eta errudunen artean taldeko kideak ere badirela. Behin misterioa argituta, protagonistek bat eginda jokatu dute, eta torneo irabaztea lortuko dute.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurle-mota guztientzat, bilduma honetako liburuek istorio xumeak eta korapilo erakargarriak agertzen baitituzte, narritiba eta komikia nahasiz.

JARDUERA-PROPOSAMENA

BAKARKA

Proposatu ikasleei aukeratzeko eleberriko osoaren adierazgarria den **objektu**, **pertsonaia** edo **eszena** bat. Ondoren, azaldu dezatela zergatik aukeratu duten hori, azalpenean kontakizuneko unerik garrantzitsuenak aipatzen saiatuz.

TALDEKA

Istorio honetan, futbol-zelaiaren barruan eta handik kanpo erabiltzen da belatz-begia. Zilegi al da norbait grabatzea, haren baimenik gabe? Eztabaidatu ikasgelan **belatz-begiaren erabilera egokiei eta desegokiei** buruz. Nahi izanez gero, idatzi arbelean ikasleek botatuko ideiak, gero denen artean ondorioak ateratzeko.

ARTE HEZKUNTZA (PLASTIKA)

Eleberriko pintada misterioetsuek ez dute inolako zerikusirik **kaleko artea** deritzonarekin. Aipatu ikasleei zer teknika eta estilo erabiltzen diren **grafitietan** (*letra-tipoak, mezuak eta leloak, horma-irudiak, txantiloien erabilera*, etab.), eta bilatu denen artean zenbait adibide. Garrantzitsua da arte-adierazpenak eta bandalismo-ekintzak bereiztea. Horretarako, jakinarazi ikasleei zer arau dauden herri-aren horri buruz.

TALDEKA

Bai pintadak eta bai **sare sozialetako** zenbait mezuak denen agerian jartzen dituzte mezuan aipatutako jendearen bizitza pribatuko kontuak. Gogoratu denon artean zer informazio zabaldu zen liburuko pintadetan, eta, gero, banatu ikasleak taldetan eta zerrendatu ditzatela zer **galdera** egin beharko liratekeen beti, sare sozial batean **zerbait argitaratu aurretik** (*Igotzera noan argazkian, ageri al da beste pertsonarik? Agian, ez dute hor agertu nahiko? Gerta al daiteke idatzi dudan zerbaitez damutzea etorkizunean? Argitaratzera noana iraingarria al da norbaitentzat?*). Taldeetan sortutako galderei buruz denon artean hitz egin ondoren, komeni da pribatutasuna errespetatzearen garrantziaz jardutea, ikasleek ez dezaten etorkizunean ekintza desegokirik egin, edo, egiten ari badira, jokabide hori zuzendu dezaten.

IDAZKETA-TAILERRA

Proposatu ikasleei erantzuteko Helenak Pake-teri liburuko 15. orrialdean egiten dion galderari: «Oraintxe bertan zure bizitzan gertatutako **uneren bat** aukeratu beharko bazenu, **kamera gel- doan** ikusteko, zein aukeratu zenuke?». Horretarako, esan ikasleei kontatzeko aukeratutako unehori belatz-begiak ikusiko balu bezala, hau da, eszenatik kanpo kokatuta eta pantailan ikusten dena kontatuta.